

Juana Arrieta Leceta

*Eibar, Gipuzkoa
(1923-2006)*

Aurkibidea

Biografia



Juanitaren aita 1923an sartu zen Eibarko arma probalekuan lanera. Eskopeten kainoiak aztertzen zituen desajustea zegoen ala ez baieztatzeko. Juanita ere gaztetxoa zela bertako ofizinan hasi zen lanean. Herria oso ongi ezagutzen zuen eta oso azalpen interesgarriak eman zizkigun antzinako bizimoduari buruz.

Zintak

AB-145

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-10-07
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-173

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-01-27
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Bustinduy Arizmendi, Idoia

AB-175

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-02-07
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-178

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-02-11
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

Pasarteak

1. Eibarko kaleetan paseoan

- **Erref:** AB-145/003
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:12:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Mariangela kaleko komentuaeren ingurua nolakoa zen azaltzen du Juanak. Arbolak eta pasealeku handia zegoela azaltzen dute. Barrenkalean ibiltzen zen jende gehiena.</p>

2. San Juanetan korridan

- **Erref:** AB-145/011

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:32:53. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

<p>Juanak zezen korridetan bizi izandakoa kontatzen du. Korridan sartzeko nagusiekin joan behar izaten ziren. Astelena frontoian ere emakumeak gizonekin dohainik sartzan zirela azaltzen du Doloresek.</p>

3. Arrateko jaietan

- **Erref:** AB-145/013
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:34:56. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Arrateko jaietan familian ibiltzen ziren. Familia osoa joaten zen jatekoa hartuta. Kanpotik ere jende asko joaten zen. Nagusiagotan lagunekin egoten ziren eta erroskillak jateko ohitura zuten.</p>

4. Neguan beti lapikokoa; Gabonetako jakiak

- **Erref:** AB-145/015
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:38:34. **Bukatu:** 00:41:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gaztetan neguan beti lapikokoa jaten zuten, garbantzuak, babak... Udan lekak. Gabonetan, berriz, barraskiloak, bisigua eta olio-aza jaten zuten. Konpota ere jaten zen. Marinak nola prestatzen zuen azaltzen du.</p>

5. Sagar mota desberdinak

- **Erref:** AB-145/016
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:42:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Sagar mota desberdinak ezagutu zituzten. Markinatik ekartzen zituzten eta Azpeitia aldetik ere bai. Arbolen tokian etxeak eraiki dituztelako desagertu direla sagarrak diote.

6. Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak

- **Erref:** AB-145/020
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:52:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Hileta-elizkizunak, klase desberdinetakoak izaten zirela kontatzen du Juanak (1go, 2. eta 3. mailakoak). Mor-morreko elizkizunetan, kanpairik ere ez zen egoten. Bederatziurrenean zer egiten zen azaltzen du Marinak; elizakoak. Gaixoren bat zegoenean, abadea gaixoaren etxera joaten zen. Klean topo eginez gero, jendea belaunikatu egiten zen abadearen aurrean.</p>

7. Kanpai klaseak eta hiletak

- **Erref:** AB-145/021
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:52:23. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpai klase desberdinak egoten ziren. Albakoa nolakoa izaten zen. Hileta egunean, agoniakoa; tristeia izaten zen hori. Beste kanpai klase batzuk: "drauna", "keria", arimakoa... Egun guztian kanpaiak. Aingeruen elizkizunetan, umeen hiletetan, urte hartan jaunartzea egin zuten lau ume joaten ziren, zuriz jantzita, eta hil-kutxari jartzen zitzaizkion lau zintetako bati oratzen zion bakoitzak. Marina behin joan omen zen ahizpa bikiarekin batera. Hori egiteagatik, bi erreal eta zinta bera oparitu zizkieten. Helduen hiletetan ere jartzen ziren zintak. </p>

8. Eibarko auzoetako jaiak

- **Erref:** AB-145/023
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:57:01. **Bukatu:** 01:00:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Antzinako Eibarko bizimodua kontatzen dute. Kale bakoitzeko jaiak azaltzen dituzte. Txirixo kalia, San Bartolome; eguna ospatzen zen. Errebalen, San Agust; n. Jardinetan, San Isidro ospatzen zen. Isasi klean San Antonio. Ermura ere joaten ziren oinez, Santixau eguna ospatzera. Sorluzetik autobusa egon arren, oinez kantuan etortzen zirela kontatzen du Juanak.</p>

9. Florentino Bueno izotz lantegia

- **Erref:** AB-173/017
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:36:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Florentino Bueno izeneko izotz lantegia non zegoen azaltzen du. Barra luze batzuk egiten zituzten. Tabernetan erabiltzen zuten. Arraindegi kalean labaderoa zegoen eta garbiketan aritzen ziren.

10. Itsasoa lehenengoz ikusi zuenekoa

- **Erref:** AB-173/027
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:50:41. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Juanita Arrietak kontatzen du bere ahizpa bat Donostiara ezkondu zela eta urtean bitan bakarrik etortzen zela Eibarrera. Orduan hori normala zen. Itsasoa lehenengoz zortzi urterekin ikusi zuen, Mutrikun, aitona hil zenean.

11. Pastelak jatearren, gaiztakeria

- **Erref:** AB-173/031
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:54:17. **Bukatu:** 00:55:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Juanitak anaiari gertatutako pasarte barregarria kontatzen du, erosketa batzuetako soberakinekin pastelak erosi zituenekoa.

12. Pagak batuta zinemara joaten ziren

- **Erref:** AB-173/037
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:59:21. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Bakoitzak jasotzen zituen pagak aipatzen ditu. Zinemara joaten ziren. Pirulia jaten zuten eta konforme geratzen ziren. Eibarren zeuden Kruzeta eta "Salón Teatro" zinemak aipatzen dituzte.

13. "Gaztetasuna" kanta

- **Erref:** AB-173/047
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:19:42. **Bukatu:** 01:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Don Poli"rekin (Policarpo Larrañaga abadea) gimnasia egiten zuten. Denek batera "Gaztetasuna" kanta abesten dute, osasunari buruzkoa. Omenaldiak eta diru-batzeak egiten zirenean abesten zuten.

14. Hika, zuka eta erdaraz zeinekin egiten zuten

- **Erref:** AB-173/054
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:28:44. **Bukatu:** 01:30:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Luciak dio euskaraz zuka egiten zutela. Doloresen eta Juanitaren etxean hika egiten zuten, baina Juanitak ahizpekin erdaraz egiten zuen.</p>

15. Kruzetaneke zinea

- **Erref:** AB-175/002
- **Iraupena:** 0:05:14. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Kruzetaneke etxea: kafetegia; zinea. Periko Kruzeta; oso gizon zuzena. Zinea nolakoa zen azaltzen dute: ederra, pianoa ere zegoen. Mutilak alde batera eta neskak bestera eseri behar izaten ziren. Pelikula amerikarrak. Beste zine batzuk: "Pabelloia". Zineko "akomodadorea".

16. Grabatugintza Eibarren; gai honen inguruan azalpen zehatzak

- **Erref:** AB-175/004
- **Iraupena:** 0:08:17. **Hasi:** 00:14:13. **Bukatu:** 00:22:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Grabatugintza Eibarren. Emakume askok lan egiten zuten etxean piezak grabatzen. Grabadore ezagunak: Jacinto Olabe, Larrañaga, e.a. Pieza bat grabatzeko prozesuaren gorabeherak. Urreduna. Gerra ondorengo urteetan, rasionamendua zegoenean, okinek ogi berezia egin behar izaten zuten grabadoreentzat.

17. Dibujo klaseak Kontseju zaharrean

- **Erref:** AB-175/006
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Kontseju zaharrean dibujo klaseak ematen zituzten irakasleak: Jacinto Olabe; Antonia Olabe; Mugerza. Klaseak noiz izaten ziren; zenbat ordaintzen zen.

18. Eibarko kale-izendegia

- **Erref:** AB-175/008
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:31:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Dña Polonia Etxebarria; Ildefonso Irusta. Julián Etxeberria. Eibarko kale-izendegia.

19. Ibarkurutzeko eskola; irakasleak

- **Erref:** AB-175/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:31:35. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Alhondigako eskola Ibarkurutzean. Irakasleak: Dña Paca, Dña María eta Dña Polonia. Arrateko eskolako irakaslea, Dña Gregoria. Dña Mariari opari bat egin zioten eta damutu egin zitzairen bekokian eraztunarekin jotzen zielako beti.

20. Sendagile ezagunak Eibarren

- **Erref:** AB-175/010
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:34:04. **Bukatu:** 00:38:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Sendagile ezagunak: Viteri; Don Ciriaco; Don Vicente. Don Ciriaco 1933an hil zen istripu baten ondorioz. Istripuaren inguruan hitz egiten dute, zazpi Eibartar hil ziren. Errepublikara garaian, San Ignazio eguna lan-eguna izatera pasatu zen eta horren inguruko kontuak kontatzen dituzte.

21. Errebal ingurua: dendak; etxeak

- **Erref:** AB-175/012
- **Iraupena:** 0:08:39. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:47:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Ibarkurutzea. Lucía, Zuloagaren etxean jaio zen. Etxe hartan bizi ziren eibartarrak aipatzen dituzte. Ibarbe etxea, Don Eugenio Urroz parrokoa bertan bizi zen. Café Europeo. Matildeneko denda (gauero kafea tostatzeko zuen). Errebal inguruko denda guztiak gogoratzen ditu Luciak. Tren geltokia. Armarridun etxeak Eibarren.

22. "Indianokua" jauregia eta ingurua

- **Erref:** AB-175/013
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:47:39. **Bukatu:** 00:49:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Indianoko Jauregia. Ortu ikusgarriak zituen (mandarinak....). Pegora ederra baina oso iluna. Neskamea izaten zuten. Etxe iluna; umeen ikuspegitik "misteriotsua". Etxe ingurua nolakoa zen: erreka; oilotegia; Areatzako presa. Familia bakarra bizi zen bertan. Goiko pisuan, Markesa bizi zen, beraien tia. Pantaleón izeneko gizonak Indianoko ortuak zaintzen zituen.</p>

23. Eskola kontuak; Dña Polonia irakaslea

- **Erref:** AB-175/016
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:56:53. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Dña Polonia Etxebarria irakaslea; nolakoa zen. Eskola kontuak; auzoaren arabera joaten ziren eskola desberdinetara.

24. Aldatzeko mojak Eibarren; lehenengo urteak

- **Erref:** AB-175/017
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Aldatzeko monjak. Madre Loyola. Pageiko etxe batean hasi ziren klaseak ematen (gaur "El Casco" dagoen tokian). Natividad Bazterra, Eibarko lehenengo moja. Etxean nola hartu zuten gurasoek alaba moja sartzea.

25. Udaletxeko eskolak; irakasleak

- **Erref:** AB-175/018
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:47. **Bukatu:** 01:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Udaletxean eskolak ematen zituzten garai batean. Irakasleak: Dña Petra, Dña Aurora, Dña Clara, Srta. Nieves, Dña Consuelo, Dña Domitila.</p>

26. Ikastolen sorrera; lehenengo urratsak

- **Erref:** AB-178/002
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Lehenengo ikastolak Bilbon ipini ziren martxan eta Margarita Murgizuk bertan hasi zen klaseak ematen. Algortan eta inguruko herrietan ere interes handia jendearen artean. Ume asko, etxean dirurik ez eta ezin izaten ziren ikastolara joan, baina "protektoreak" egoten ziren, eta hauek umeei klaseak pagatzen zizkieten. Gai honekin lotuta ume baten historia kontatzen du.

27. Ikastolen sorrera: lehenengo urratsak; udalarekin arazoak

- **Erref:** AB-178/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Gau eskolak. Eskola Munizipalak amaitu eta gero beste ordubeteko klaseak ematen zituzten, euskara ikastea nahi zuenarentzat. Urteko matrikula 1.000 pta-koa zen. Udaletxeak hasieran gestora batzuk ipini zituen, baina irakasleei ordaintzeko arazoak izan zituzten. Irakasleen artean batzarra egin eta handik aurrera kobratu gabe klaseak ematen jarraitzeko erabakia hartu zuten.

28. Bilboko bonbardeoa zuzenean bizi izan zuten; exiliora joan beharra

- **Erref:** AB-178/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bilboko bonbardaketak ikastolan harrapatu zituen. Lehelengo Frantziara joan ziren ihesi, La Rochelle-ra; gero Belgikara.

Transkripzioa

- Eta gerria hasi zanian orduan han zenden zu? Bilbon...
- Bibon ne(n)guan ta gero ba, orduan esan eskuen umiekin estrangerora.
- Hori gerria hasi zan momentuan? Julixuan, edo...?
- Hasi ta segiduan ez! Lehenego bonbardeuak eta Bilbon pasau genduzen, ikastolan ge(u)ndela, bonbardeuak...Ume guztiekin sartu sala baten ta hantxe pasau.
- Klasiak jarraitxu zebeu orduan?
- Bai, pixkat bai, pixkaten e? Baiña gero ya, danak mobidu zi(r)an...
- Belgikara jua ziñazien zuek?
- Ni Belgika, lehenego hilla Fran(t)zian ta gero Belgika.
- Orduan barkoz Frantziara jua ziñazien?
- Fran(t)ziara, La Rochelera ta han e(g)on giñan hillebete. Ni e(g)on nitzan Sallabenteko batekin juntau nitzan ta bixok e(g)on giñan, hantxe. Baiña alkarrekin ez giñan e(g)on; gu leku baten ta ha ez daki(g)u nun, ez giñan enterau be e(g)in nun e(g)on giñan.

29. Exiliorako bidea bakarrik egin beharra

- **Erref:** AB-178/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Exiliorako bidea. Lagun bi agertu zitzaizkion Margaritari etxean, Holandarako itsasontzia hartu behar zutela esanez. Azkenean lekurik ez eta Margarita bakarrik joan zen atzerriara.

Transkripzioa

- Gaiñera, Fran(t)ziara juatia neria izan zan... gure amak nahi zeban bat kanpora urtetzeko; ahizta bi ge(u)nden etxian ezta? ta anaia ba... frentian edo ebillen. Bat, estrangerora juateko, harek sartuta ekan Bilbon hill e(g)in biha(r) giñala; eske ipiñi zeskuen refugixo batzuk, kale horrek estuok Someratik eta da(g)ozenak..., zaku haundi batzuk hariakin... jausi bazan, ba bonbia ta zakua gaiñera, bonbia ta zakua. Ta batek urten e(g)in bihar genduala, ta ez genduan nahi bata be; ta etorri jatazen lagun bi: "Margarita, Holandarako apuntatzera goiaz"; gure amak: "Bai, hau be apuntaizue". Ta holaxek, bueno, apuntau ninduela ta etorri zan e(g)una, ta Margarita Murgizukin akabau zan listia barkua betetzeko, ta eurak kanpuan geratu zi(r)an, bakarrik ni.
- Azkenian zu bai ta bestiak...
- Bakarrik; ta gero barkuan billau neban ho(r)ixe Sallabentekua.
- Ta barkua ta zeñek ipintzen zeban? Gobernuak?
- Gobernuak bai, gobernuak...Cerverari iges e(g)itten...
- Zer zan Cervera?
- (...) Harrapatzen zittuana barkuak, hor zebizenak...

30. Exiliorako bidea: Frantzian egindako egonaldia

- **Erref:** AB-178/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Frantziako egonaldia. Colegio de Huérfanos de Agricultores. Margaritarekin geratu ziren umeak Algorta ingurukoak ziren. Ume frantsesekin batera egiten zuten bizimodua.

Transkripzioa

- Frantziara heldu eta Frantziatik zelan Belgikara?
- Gero Fran(t)ziatik, ya gobernuak e(g)in zeban Belgikakin kontratua hango arzobispuakin; (bisque.. basques kinder work), pro-niños vascos, e?. Belgikan e(g)itten zebe ba, eskatu, konparaziño baterako, batek "una niña de unos 8 años", bestiak "un chico de tal"; eskatu ta....Ya Fran(t)zian esan zeskuenian "etorri trenera", trenerako ya etorri zi(r)an papelokin. Umiak ikusten ebenian [ume] bat: "tra" bati, ezta? "una niña", ba una niña. Orduan, preparau zittuen ya trenian.
- Ta bitxarte horretan... heldu ta trenera jua bitxarte horretan, nun egon ziñazien? Refugixoren baten edo?
- Zerian, Fran(t)zian?
- Bai

- Colegixo baten; Colegio de Huérfanos de Agricultores; gizonezkuena.
- (Juanita Arrieta) Ze zonan, La Rochelle (...)?
- Gradignan, e(g)on giñan lekua Gradignan, colegixo eder bat; baiña horixe, umezurtzak.
- Eta ume gehixenak zer zi(r)an, Bilbo ingurukuak esan dozu?
- Bai. Nerekin geratu zi(r)anak zi(r)an Algorta ingurukuak danak. Euskerarik ez zekixen, ez zekixen euskeraz. Ta gero hor, uste dot esan netsuela, umiak e(g)on zi(r)an fran(t)sesekin batera.

31. Exilioa: umeekin izandako gertaerak

- **Erref:** AB-178/008
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Anekdotak bat kontatzen du (San Pedro egunean, bazkaltzera joan eta ume euskaldunak ezer jatea nahi... Gaizki-ulertua egon zen, okela beharrean, katua zelakoan).

Transkripzioa

- [Aurreko egunian]...anekdotak kontau ziñuazen oso, oso onak. Zelan zan? Bata, ogixana edo...
 - Atzera esan bihar dot?
 - Bazkaltzen edo...bai eurak [bixak be] entzuteko!
 - Bueno ba, umiak eren -ez dakit- hamabi edo hamahiru edo holaxe zi(r)an. Ta ze(g)uan frailien artian ze(g)uan, batek txapurreatzen eban pixkat erderia ta ha etortzen zan beti umietara berba e(g)ittera, eurekin berba e(g)ittera. Ta alle(g)au zan San Pedro e(g)una ta bazkarixa eken ederra, ezta?; hasi zi(r)an danak jaten, ta umiak jaten eben ba fran(t)sesekin, nahastian....nahastian... ta hasi zi(r)an partitzen ta aille(g)atzen zi(r)anian euskaldun batera... Bueno, lehelengo jan zebeñ zopia, ta danak...; gero hurrengokua okelia zan, ta euskaldune(g)ana allegau zanian: "Nik ez dot nahi..."; "Baiña, ederra da(g)o baiña gaur, ta jaizu!"; "Ez, ez, ez...ez dot nahi". ...Kitto!; fran(t)sesak hartzen eben eta atzera euskaldun batera alle(g)au ta: "Nik ez dot nahi, ez jata gustatzen"; "Zela ez jatzula gustatzen, beti jaten dozu ta?"; "Ez, ez, ez...ez dot nahi". Atzera beste bat eta bardiña; euskaldun bat batek be ez zeban jan okelarik, ta fran(t)sesak danak. Orduan, zerbitzen ebena mahaixa juañ zan frailiangana... bueno, abadia(ren)gana, gure euskaldun abadia(ren)gana ta esan etsan " Zuen umiak huelgan dare, e? ez dakit zer pasatzen dan, baiña iñork be ez dau nahi jan, ta ez dau jan iñork be" ; ta txokau e(g)in jakon ta juañ ta esan eban: "Bueno, zegaittik ez dozue jaten hau?" ta, "Badakigulako zer dan"; "Zer dan?, okelia!". Ta, "Bai, baiña zerena? katuana!"; "Nundik etara dozue katuana dala hori?; zeñek esan (d)etsue?". Ta, "Fulanok...", frailiak, eurekin e(g)oten zanak. Etorri zan frailia ta esan etsen "¿Qué les ha dicho usted a éstos de la comida de hoy?", "Yo nada, que tienen gató (gateau) en el postre, que tienen gató (gateau) en la comida". Eta bai ba, gató zan ba pastel; pastela eken ta, esan gentsen, "Bixartik aurrera fran(t)sesa ikastera e?".

32. Exiliorako bidea: Belgika; bertakoen harrera

- **Erref:** AB-178/009
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:21:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Umeek ez zuten kontakturik etxekoekin. Belgikara joan zirenean, umeak etxeetan banatu zituzten. Bertako ikastetxeetara joaten ziren ikastera eta segituan flamenco ikasi zuten.

Transkripzioa

- Eta umiak eta bazeken barririk gurasuak eta zelan zeren edo?
- Eze(r) be ez, eze(r) be ez... Nik be ez neban jakin, hillebete Franzian e(g)in nebana eze(r) be ez; periodikuetan ikusten gendua, "Bilbao bombardeao" ta hortik aurrera eze(r) be ez.
- Orduan umiak nahiko..., umientzat oso gogorra izango zan?
- Bai...Gero Belgikara juan zi(r)anian ya umiekin ez genduan lan haundirik esateko e(g)in; ze(g)aitek umiak eruan zittuen etxietara danak, ta etxe onetara, ta danak e(g)on zi(r)an han ikusgarri!...Belgikan egon zi(r)anak. Ta lehelengo esaten zeskuen bueno: "Emon bihar dozue egun bi astian dotriña, ze(g)aitek komuniua e(g)itteko sasoian dare umiak eta gertau e(g)in bihar di(r)a". Baiña hille bira edo, danak ekixen flamenko; zela danak (...) kolegixuetara, guk ez gentsen eureri entenditzen eta eurak be ez guri...
- (DoloresTolosa) El valón y el flamenco...
- Si, el francés y el flamenco, pero allí era flamenco, en Amberes era flamenco. Ta juan zi(r)an danak etxietara.
- Eta han hobeto e(g)on zi(r)an orduan umiak?
- Bai, danak ondo.
- Han be ez zebe jakingo...euren etxian...
- Bai, baiña gero bai, bai...

33. Belgikako exilioa: familietan eta "La Concordia" ofizinan lanean

- **Erref:** AB-178/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:09. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Euskal Herriak joandako maixu-maistrek ez zuten orduan umeekin zeregin handirik eta bulego batean egoten ziren, "La Concordia"-n: kartak itzuli, umeen-familien jarraipena egin, e.a. Ume asko bertan gelditu ziren, Belgikan.

Transkripzioa

- Bai…gu e(g)oten giñan, umiekin zelan ez genkan zer e(g)iñik ya, egoten giñan ofiziña baten "Concordia", ta hamendik bialtzen zittuenian kartak, gurasuak umieri, ba etortzen zi(r)an

ofiziñara. Ta han e(g)uan gazte bat, (...) e(g)itten ebana, flamenkuetan, ta e(g)itten zan ba traduzidu; harek flamenko ta frantses bazekixan, ta guk español ta euskaria…. Bueno, e(g)in tradukziñua ta familixakuekin…; ta gero handik e(g)itten ebenian umiak eta, bueltarako be bardiña; gero gurasuak, hangauk, e(g)itten ebenian, bardiña… - Umieri orduan ahaztu e(g)in jakuen erderia? - Segiduan! Segiduan! - (Juanita Arrieta) Bai, bai, bai…. - Txokatzekua, zu! - (Juanita Arrieta) Andoni Gisasolak be ekazen 9 urte ta ha gera(t)u zan Gorlizen, gaixorik e(g)uan hezurretatik. Handik, lehelengotik, eruan zittuen horrek gaixuok eta; etorri zanian Jardiñera, tautik be ez! - Ez, ez, ez….segiduan… - Tautik be ez baiña, e? - Segiduan...; hasten giñan pregunta bat e(g)iñ eta, ta...eta erdixa flamenkoz ta...ta ez daki(g)u ba zer esan eskun be. Baiña segiduan laga genduan.... - Orduan gero mantendu zan umien eta zeuen artian relaziñua? - Bai...; bai, bai, bai.... - (....) - Sarri etortzen zi(r)an etxe batekuak eta: “Zu jua zaittie gurera zegaittik egun guztian negarrez da(g)o ta zelan ezin daben esplika, ez daki(g)u zer pasatzen jakon, ta mesedez...”; ta jua ta enteratzen giñan zegaittik zan ta; ba lehelenguan jakiña zan, ez zebe aitzen ezer ta negar e(g)ittia be... Beste batzuk segiduan... - ...Bai, gero norberan... - Ze edade zeken umiak orduan?. Sei, zortzi, hamar urte? - A danekuak, danekuak...; bat alle(g)au zan -ez zan jakin sekula be zein zan- ume txiki bat, txikixena danetatik; ta izena geuk ipiñi bihar izan gentzan. Han batenbat barkura eruan eban ta ez daki(g)u gero bitxartian gurasuekin edo zer... - Eta ha Belgikan gelditxu zan? - Bai... geratu zi(r)an beste batzuk be bai. - A bai? - Ta askok, ya relaziñua... Bueno, Plazen(t)ziako batzuek dakit nik; hiru anaitxo, anai-arreba, zi(r)an bai?, ta e(g)on zi(r)an, harek ipiñi zittuen hiru anai-arreba, ta ipiñi zittuen hiru familixatan, baiña hiru anai zi(r)an harek [guraso hartzaileak]; gurasuak hiru anai. Así que “mi padre” oin esaten dabe ta “mi padre” ta “mi tio” ta haren notiziak; ta oin be harek etortzen di(r)a hona, ta honek juaten di(r)a hara ta jarraitzen dabe, baiña oso oso familixako...

34. Gerrako umeak: exiliotik etxerako bidea

- **Erref:** AB-178/012
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Herrietako egoera hobera egin ahala, gurasoek seme-alaben itzulera eskatzen zuten. Guztira 2 urte eta 3 hillabete egon ziren Euskal Herritik kanpo.

Transkripzioa

- Zelan gogoratzen dozu orduan zuk Belgikan pasautakua?
- Ederra, ederra, eder-ederra. Gero hasi nitzan ba notiziak eukitzen familixakuak, ba ya ez zan falta... Gero, kolonia bat preparatzen zanian ekartzeko...Bueno, hamendik Espaiñiatik abixatzen zan ba eskatzen bakoitxak, ba(d)akizu herrixa liberatzen zanian, ba gurasuak umia eskatu e(g)itten eben; ta listak, lista bat e(g)indakuan hartu ta ekarri e(g)itten zittuen. Etorri giñan..., behin tokau jatan etortzia fronterara la(g)untzera,

baiña sartzerik ez ze(g)uan. Apuntatzen giñan danetarako ta pentsauta: "Bueno, laster goiaz etxera", ta e(g)un batzuk aurretik "Denegado el permiso, denegado el permiso".... kitto!; ta atzera bertan geratu bihar...
 - Bueltatzeko gogua zekazun zuk?
 - Baai...Danok!, danok!; etxeko zeozer jakin ta!. Baiña ondo gendela bai, e? lkusgarri.
 - Ta zenbat denpora azkenian Belgikan?
 - Bi urte eta hiru hillabete.
 - (Juanita Arrieta) Jesus..! ¡Mucho!
 - Bai asko, asko. Bai, harek flamenkuak, horrek gaztiorrek esaten (z)eskun: "flamenkua ikasi bihar dozue... " , ta "Bai, segiduan jun bihar gara ta....; hobe do(g)u fran(t)zesa, zeozertarako han balioko dosku fran(t)zesak". Ta ez giñuan... Da, hainbeste denpora e(g)on ta gero, esan genduan "Ba hasi e(g)ingo gara..."; ta hasi giñanian, etxera, etxera...
 - (Juanita Arrieta) Ura jua ta presia e(g)in zenduen orduan?
 - Bai, bai. Ta nik harekin euki dot, neuk be, korrespondentzia; ointxe, azkenengo, heldu jata azkena denpora gitxi dala.
 - Belgikatik, e?

35. Euskaldunen laguntasuna exilioan

- **Erref:** AB-178/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Belgikan bizi ziren euskaldunen laguntza. Jaiak antolatzen zituzten ume exiliatuentzat dirua lortzeko. Gregorita Olañeta eta William margolaria.

Transkripzioa

- Esan ziñuan han asko lagundu zetzuela eibartar batek, ez?
 - Bai, bai...Gregorita Olañetak.
 - (Dolores Tolosa) A, Gregoritik?
 - Bai...
 - Eta zelan laguntzen zeban harek?
 - E?
 - Zelan laguntzan zeban edo?
 - Ba, e(g)itten eben lantzian behin "kermes" esaten jakon; jaixak, euren jaixak, euren San Juanak zi(r)an kermesak. Ta e(g)itten eben ba, errifak eta dantzak eta bueno, gauza asko, ezta?. Ta errifetarako emoten zittuen kuadruak Williamek pintxautakuak eta Goyak e(g)indakuak; Gregoritik e(g)indako tetera batzuk, politxa(g)uak bai, hilandera jantzitxa, e?, teteria tapatzeko... politxak!; halakotxe gauzeekin, gauza askokin... Ta gero bazkaltzera eruan hara... sarri, sarri gu na(g)usixok. Esan netsuen; agertu zi(r)an Eibarko arkitektua Manchovbas bere andriakin ta umiekin. Ta gero donostiar bat ta beste bilbotar bat eta...; na(g)usixok inbitauta juaten giñan euren etxera.
 - Gaiñera bizi zirala e...
 - En el palacio de Rubbens. Geu geundela han, hasi zi(r)an preparatzen museo bat e(g)ittek, museo bat. Orduan pasau zi(r)an Villa Willian, beste txalet-txo batera....
 - Willian hori famosua zan han?

- Bai, bai... ta haren aitta, haren aitta izan bihar zan pintxore famosua ze(g)aittik ayuntamientuan e(g)uazen mural batzu harek pintxautakuak.

36. Atzerrian bizi ziren euskaldunen laguntza exiliatuei

- **Erref:** AB-178/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:29:23. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Gregorita Olañetak egunkarian irakurri zuen Belgikara ume euskaldunak heldu behar zirela eta bere laguntza eskaini zuen. Eibarren oso emakume ezaguna zen.

Transkripzioa

- Kasualidadia, e? Alde egin Bilbotik ta hara heldu eta eibartako batek e...
- ...Eibarko bat billatzia han e....haundixa; ta gaiñera ondo e(g)uana ta laguntzeko gertu ze(g)uana beti...
- (Juanita Arrieta) Ho(r)ixe, ho(r)ixe inportantia.
- Bai...
- Gaiñera ez zenduen zuek bera billau, ezta?. Bera agertu zan...
- Bera agertu zan. Irakurri zeban periodikuan zela(n) ume euskaldunak alle(g)atzen zi(r)an; ta bera jua(n) zan esatera pues: "Interprete bat nahi b(ad)ozue hemen na(g)o ni, nik badakitx euskeria ta". Ta esan etsen, hantxe esan etsen: "ba, eibatar bat be etorri.(...)"; [Gregorita, Belgikan bizi arren] Eibarkua zala ta ba: "eibatar bat be hamentxe dator ba...!". Ta orduantxe deitxu ta alkarrekin ezagueria egin.
- Ez zenduen alkar eza(g)utzen lehena(g)otik?
- Eza(g)utu nik bera bai!; famosiak zi(r)an Eibarren ta berak esan estan nere ahiztia asko eza(g)utzen ebala na(g)usixa(g)ua...
- (Juanita) Dolores...
- Bai...baiña nerekin ez zala hainbeste akordatzen.
- (Dolores Tolosa) Gregoritik?
- Gregoritik.
- Zuk esan ziñuan Dolores [Dolores Tolosari egindako galdera]... guapisimia zala ezta [Gregorita Olañeta]?
- Politxa! Politxe(n)etarikua ta sinpatikia, e?; beti barrez-barrez e(g)uana.
- Ta asko balio ebana zan gaiñera.
- E?
- Asko balio ebana.
- Bai ezta?. Ta haren lagun intimak Filo...
- Bai...
- Filo ta Eugenia Egia.
- Hiru zi(r)an bai.
- Bai, las tres.
- Las tres, las Tres Gracias.

37. Exiliotik itzulera: hutsetik hasi beharra

- **Erref:** AB-178/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:30:50. **Bukatu:** 00:33:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eibarrera itzuli zirenean (1939ko urrian), berriz ere hutsetik hasi behar. Etxean ekin zion klaseak emateari. Ikastolan egotea nahikoa zen "zerrenda beltzean" egoteko. Eskolarik ez zegoenez, gurasoek beraien umeak zerbait ikastea nahi izaten zuten. Baserrietako umeak ere joaten zitzaizkion klase partikularretara.

Transkripzioa

- Belgikatik bueltau eta dana berriz hutsetik hasi bihar izan zenduan, ez?
- A bai, handik etorri nintzanian... Kalkulau e(g)in bihar dot...
- (Juanita Arrieta) Gerria amaitxuta etorri ziñan?. Ala amaitzeko?
- Europeia hasitxa, hasitxa...
- (Dolores Tolosa) El dieciocho. No, el catorce; el catorce...
- (Juanita Arrieta) No treintainueve...
- Treintainueve ta octubrian ...
- (Juanita Arrieta)....ésta terminó en abril del treintainueve eta bestia ekin zan....
- Eta zer hasi ziñan, klasiak emoten berriz?
- Ardantzan, la Academia de Ardanza; etxian, etxian, etxian...
- Ez zetzuen lagatzen eskolan klasiak emoten?
- Pentsau be ez! Ta eskatu be ez permissorik...
- Ez zetzuen emongo?
- Ez ta!...ez...
- Rebeldia ziñan zu?
- Ez, rebeldia ez...
- Listan zenden?
- (Juanita Arrieta) En la lista negra? Estabas en la lista negra?
- Danok genden; Ikastolan e(g)otia nahikua zan...
- Eta zer zan? Akademixia zan?
- Eez...Eskolia; partikularra. Ta modan e(g)on zan orduan, e?; gerra ostian partikularra, oso modan e(g)on zan. Ze(g)aittik zelan umiak hainbeste denporan e(g)on zi(r)an eskolara jua barik, jentia nahi zebe umiak ikastia... Askoo... Basarritxarrak be asko etortzen zi(r)an, asko...
- Basarritxarrak goizian etorri, astuakin, esnia partidu ta eskolara. Ta gero ba, arratsaldian atzera eskolara etorri biharrik ez, ta partikularrian. Askoo baserrixarrak be...
- Orduan partikularrian zebizenak ez ziran juaten eskolara bestela? Ez zan goixez eskolara eta arratsaldian partikularrera?
- Ez, ez...
- (Juanita Arrieta) Berrito be esniekin bueltau e(g)in bihar; eguardirako bueltau e(g)in bihar etxera! (...).
- Anaiak esaten zetan neri: "Demokrazia hementxe da(g)on! Demokrazia hementxe da(g)on!". Eskolara etortzen zan ba baserri batekuak -oiñ ez dakitt izenik baserrixanak, da danak ahaztu dittut-. Baserri batekua etortzen zan ta maiorazgua ezta, mutikua?, ta morroia. Bixak nere eskolara etortzen ziran; holaxek oratuta. Esaten eban : "Horrek ugazabarrok (ugazabak) morroia be bere semiakin matrikulau dau, ta alkarrekin".

38. Exiliotik itzuli eta Eibarko egoera zein zen

- **Erref:** AB-178/018

- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:34:12. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Belgikatik itzulitakoan, Eibar haustuta topatu zuen. Ardantza ingurua; erreka. Amberesetik etorri eta dena "txatxarra" begitantzen zitzaion.

Transkripzioa

- Belgikatik bueltau ziñanian, zelan topau zenduan Eibar?
- (Dolores Tolosa) Haustuta, haustuta...
- Haustuta ba... Etxe aurria be, dana haustuta...
- (Dolores Tolosa) Rajao...
- (Juanita Arrieta) Zuen etxia, zuen etxia... Ez...
- Ez. Bueno baiña gure etxia, Ardantzan bizi giñan orduan ta... Bueno, Bilbon bizi giñan...
- Ardantzara alle(g)au barik, hantxe zubixian bizi izan ziñazien zuek...
- (Dolores Tolosa) Zubixa ez, ha zan topia. Haren behian e(g)uan erreka.
- Bai, bai...Zubixa...
- (Juanita Arrieta)...eskillarak igotzeko...
- (Dolores Tolosa) Ha plaza aurreko itturritik, zerian bizi zan, hau hantxe zerian...
- (Juanita Arrieta) Kantoian?
- Bai, nik Dos de Mayo holaxe nekan. Nere kuartotik holaxe zuzen e(g)uan dos de mayo...
- (Dolores Tolosa) Dos de mayo lehen, oin dan erdixa zan. Erdixa..
- Zuek be rekuerdo hori dakazue gerrakua?
- Dana hautsa, dana eskonbrua, dana...
- Baiña zure etxia zutiñik geldittu zan?
- Ah! Horixe esatera nindoian. Guk genkan etxia ta gero albuhan holan, taillarra. Ta taillarra zisko e(g)inda, baiña etxia osorik.
- Eta taillarra be zeuena?
- (Juanita Arrieta) Ez...
- Bai, taillarra bai.
- (Dolores Tolosa) Luis (...) terrenuetan taillarrak eta, tallartxo mordoskia e(g)uazen.
- Etxian topian. Etxia zan hola ta haren behia ta hemen albua taillarra zan. Okamikatik e(g)itten eban...
- (Juanita Arrieta) Bai Okamikanekuak. Han (....) akabatzailliak e(g)oten (j)ittunan han behian.
- Betolazanekuan han ostian...
- Gogoratzen zara lehenengo inpresio hori, justo gerria amaittu eta Belgikatik etorri eta lehenengo aldiz Eibarrera sartu ziñanian?
- Dana be(g)ittantzen jatan txatxarra, dana txatxarra; txikixa ikusten neban dana.
- Bai, bai...hain leku haunditik etorritakuan...
- Bai ba...!

39. Euskararen egoera gerra zibilaren ostean

- **Erref:** AB-178/020
- **Iraupena:** 0:00:11. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:38:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Euskararen aldeko mugimendu handia Bilbon. Gerra ostean euskaraz berba egiterik ez zegoen; umeei euskarazko izenik ipintzerik ere ez.

Transkripzioa

- Lehen aittatu dozu gerra aurretik eta, Bilbon eta, euskerian aldeko mobimientua nahiko inportantia egon zala ez? Gero gerriak hori guzti hori...
- Ene...Hori ta gehixa(g)o... Dana behera. Izenik be ez eben lagatzen euskeraz.
- (Dolores Tolosa) E?
- Izenik be ez eben lagatzen; hitz e(g)itterik be ez ta...

40. Euskararen egoera Eibarren trantsizio garaian

- **Erref:** AB-178/021
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:38:16. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara

Laburpena:

Eibarren euskarazko klaseak ematen hasi ziren Klub Deportiboan. Margarita ere euskarazko klaseak ematen hasi zen neska talde bati. Euskaraz bazekiten, baina gehiago lantzea nahi zuten (gramatika...). Umandi-ren gramatika orduan irten zen.

Transkripzioa

- (Juanita Arrieta) Hamen gero hori e..., ekingo zotsenak zi(r)an Paulino ta, Jose Luis Ugarteburu ta, Deportibuan...
- A bai...
- (Juanita Arrieta) Horrek ekin etsen eskolak eta emoten.
- Ez dakit nun emoten eben, ez dakit.
- Deportibuan.
- Bai. Ta orduantxe zan...
- (Juanita Arrieta) Paulino ta...
- Don Rafaellek esan estan: "Margari, zu be hasi bihar zara neskekin"; ta "Nik, nik ez dakit hainbeste ta.." ; "Bai, bai, bai...hasi e(g)in bihar zara". Kuadrillia jirau zesten ta, Edurne Mujikan etxian.
- (Juanita Arrieta) Hombre..!
- Txirixo kalen.
- (Juanita Arrieta) Joakin Mujikan...
- (Dolores Tolosa) Joakiñen alabia.
- Eta zeintzuk hasi ziñazien? Zeu, Edurne eta..?
- Edurne eta gero...; a ver, Basauri, ahizta bi.
- (Juanita Arrieta) Bai, bai. Serafin Basaurin...
- Gisasolak, ahizta bi.
- (Juanita Arrieta) Eguzkiñe eta...
- Eguzkiñe eta Garbiñe.
- (Juanita Arrieta) Estanisenak, Estanisenak.

- Bai. Gero Garate, "Perderrenekuak", lehengusiña bi. Gero, Etxezarraga dendia (z)ekana Dos de Mayon...

- (Juanita Arrieta) Miren, Miren.

- Miren Etxezarraga. Gero, Elenita Etxeberria...Marcaide bat...Ez!, Marcano. Marcano bat, gero kanpora jua zan...

- Dolores Tolosa (....)

- Ez dakit zein...

- (Dolores Tolosa) Arkitektua edo e(g)itten ebana...

- (Juanita Arrieta) Marcano?

- (Dolores Tolosa) (.....)

- (Juanita Arrieta) Haretxen alabia izango zonan; Lekeittioko batekin ezkondu.

- (Dolores Tolosa) Lekeitiokua. Politxa neska...

- (Juanita Arrieta) Ez zonan gerra aurrian aiuntamientoko, Aiuntamientoko delineantia edo ez zan?

- (Dolores Tolosa) E?

- (Juanita Arrieta) Marcano gerra aurrian aiuntamientoko delineantia...?

- Bai, bai...

- Ta zer emoten zenduezen, klasiak?

- Bai. Ya euskeraz bazekixen horrek, e? baiña ba, landu pixkat....

- Eurek zer ziran baiña profesoriak, honek guztiok?

- Ez, ez honek alumnak. Baiña baekixen euskeria, baiña gramatikia iakin ikastia gero; Umadin gramatika orduantxe urte(n) eban.

41. Eibarko Arma Probalekua

- **Erref:** AB-178/036
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:08:24. **Bukatu:** 01:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Juanitaren aita 1923an sartu zen probalekuan lanera. Eskopeten kainoiak aztertzen zituen, desajustea zegoen ala ez baiezatzeko. Eibar, Elgoibar, Plazentziako arma guztiak bertatik pasatzen ziren. Probalekuko arduradun nagusia, komandante bat zen; honekin batera kapitana "Kapitan txikixa" (Revilla) eta maixu armagin bi zeuden. Junta de Industriales. Juanita ofizinan egon zenean lanean, Komandante Arakama zen arduraduna.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com